

ALAVES, UEFAKO FINALEAN



Mito gorria

LIVERPOOL, BERRIZ ERE EUROPAKO FINAL BATEAN. Liverpool talde ingelesa mistikaz eta sinboloz beteriko kluba da; kondairaz eta pasadizoz zipriztinduriko historia aberatsa dauka



LIVERPOOL F. C.

Sorrera: 1892. **Ezizena:** *The Reds* (Gorriak). **Estadioa:** Anfield Road (45.362 ikusle). **Palmaresa:** 18 Ingalaterrako Liga, 5 Kopa, 5 Kopa, 13 Superkopa, 5 Europako Kopa, 13 Errekopa, Europako Superkopa bat eta 2 UEFA Kopa. **Entrenatzailea:** Gerard Houllier.

Atezainak: Westerveld, Friedel eta Arphexard. **Atzelariak:** Henchoz, Song, Staunton, Hyypia, Babel, Heggem, Matteo, Carragher eta Traore.

Erdilariak: Smicer, Redknapp, Hamann, Murphy, McAllister, Thompson, Gerrard eta Berger.

Aurrelariak: Heskey, Fowler, Owen, Meijer, Camara, Diomedea eta Barmby.

Naxari Altuna | DONOSTIA

Liverpool hiri ilunean lumagorriak zituen hegazti bat bizi zen aspaldi. Lekukoen esanetan, San Juan Liverpoolgo patroiairen arranoaren ondorengoa omen zen. Ingalaterrako hiri hartan sortu zuen bere habia, eta *Liver Bird* izena hartu zuen. Orain futbol taldearen sinbolo bilakatu da urteen poderioz. Hark Fenixen dohainak omen dauzka; taldeazken hamarkadan desagertuta izan baita nazioartean, eta orain indartsu dator, indarberrituta.

Liverpool futbol taldearen sorrera arestian aipatu pasadizoa bezain bitxia da. Anfield Road futbol zelaia taldea bera baino zaharragoa da. John Houlding hiriko alkatea zen Anfielden jabea. Futbolzale porrokatua izaki, Everton hiriko beste taldeari zabaldu zizkion futbol zelaiko ateak 1884an. Hastapeneko urteetan gorritz jokatzeko zuten Evertonek, hori baitzen alkatearen kolorerik gustukoena. Baina alokairuaren inguruan desadostasunak sortu zirela eta, 1892an Everton Goodison Parkera joan zen. Han beste klub bat eraiki zuten, izen berarekin, eta Houldingek Liverpool futbol taldea sortu zuen. Hastapenetik, Anfieldeko taldeak leku eta joera ezberdineko gizasemeak hartu ditu. Eskoziarren ekarpena, esaterako, erabakigarria izan da klubaren historian.

Liverpoolen sortzaileak John Kenna enpresa-gizon irlandararen laguntza izan zuen aurreneko jokalaria fitxatzeko: 13 eskoziar eta irlandar eraman zituen Glasgowtik. Hasieran urdinez jokatzeko talde hark. George Allan eskoziarra izan zen nazioarte mailan aritu zen Liverpoolleko lehen jokalaria XIX. mendearen hondarrean, eta 1898an gerora garrantzi handia izan duen erabakia hartu zuten klubeko agintariek:

BOOT-ROOM

Liverpooleko historia botak gordetzen ziren gelatxoan egin zen, han hartzen baitziren erabakiak

kamiseta gorriarekin jokatzeko. Lehenengo titulua XX. mendearen hasierarekin batera iritsi zen: 1901eko Liga.

Gerrateek, krisi ekonomikoak, portuaren gainbeherak... hiriak eta taldeak berak

urte latzak igaro zituzten, 60ko hamarkadaren hasiera arte. Orduan Bill Shankly manager eskoziarra iritsi zen Liverpoolera eta historia berri bat hasi zen.

Shankly, Liverpoolen aita

Shankly Liverpoolen aita da. Kultura eta mistika berezia sortu zuen Anfielden: bere eskutik jaio ziren Liverpool garailea eta Anfieldeko mitoa. Lehen Mailara igo eta txapeladun egin zuen Shanklyk Merseyko taldea: lehenengo Ingalaterrako txapeladun eta gero Europako errege. Beatlesak eta hiriko futbol taldea elkarrekin gailurrean.

Shankly-k «Boot-Room Brigade» delakoa sortu zuen, aldagetako taldea alegia. Botak gordetzen zituzten gelatxoan

BITXIKERIAK

‘SPION KOP’

Ez dute inoiz bakarrik utziko

Munduko harmailarik ospetsuena 1906an sortu zen Anfielden. Hegoafrikan Boersen guda izandako mendiarren izena hartu zuen. Han 60ko hamarkadaz gerotik *You'll never walk alone* kantua entzuten da; garai hartan irratiko zerrendetan lehen tokian zegoen kantua hain zuzen ere. «Liverpool, inoiz ez zaitugu bakarrik utziko» dio letrak. Horixe da Merseyko taldearen indarra. Zutikako harmailak zeudenean, Liverpoolleko zaleen alkohol usainak arerioak zorabiatzen zituela esan ohi da. Kamiseta zikinak ere maiz erabiltzen zituzten jokalariek, kiratsarekin markatzaileak uxatzeko.

BOTA GARBITZAILEAK

Gazteak behe-behetik hasten dira

Harrobiko gazteek euren idoloen botak garbitzen dituzte. Ohitura hori Bill Shankly-k ezarri zuen, betaranoie begirunea izan diezaieten. Gazteei baloreak irakasteko modu bat da. Bitxikeria gisa, Steve Mc Manaman harrobian ari zenean, John Barnesi garbitzen zizkion botak, eta handik urte batzuetara elkarrekin aritu ziren aurrealdean. Gero, Lehen taldeko jokalariek, urte amaieran, gabon saria ematen diete bota garbitzen dizkion harrobiko jokalaria. Harrobia garrantzitsua da Liverpoolen, eta prestakuntza zentroari akademia deitzen diote. Ingalaterrako harrobirik oparonetakoa da.

ZALEEN ATXIKIMENDUA

Talde oso bat, bi haur bataiatzeko

Liverpoolekiko sentimenduak zelaia bera gainditzen du. 1974ko maiatzaren 20an Ingalaterrako Kopa irabazi zuen Newcastleren kontra. Egun hartan Liverpoolen jaio ziren Kevin Ross eta Victoria Edwardsi izen bereziak erantsi zizkioten haien gurasoek: Victoria Shankly Clemence Smith Lidsay Thompson Cormack Hughes Keegan Hall Highway Toshack Callaghan Lawler Edwards jarri zioten neskatoari. Besteari, berriz, Kevin Stephen Emilyn Alexander Philip Peter Thomas Ian John Raymond Brian William Ross. Txapeladunen ohorez, bakoitzaren abizenak eta izenak tartekatuta zituzten.